

9 bizitzako historiak

Juan Manuel Arroyo Alcon - ELHABE



emakumeak kontuan





EUROPAR BATASUNA
UNION EUROPEA
EUROPAKO GIZARTE FUNTSA
FONDO SOCIAL EUROPEO
Europako Gizarte Funtsek
zure etorkizunari inbertitzen du
El Fondo Social Europeo
invierte en tu futuro



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



ERPLEGU ETEN GIZARTE
GAZERAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social

Caja Vital  **Vital Kutxa**



GUREAK ARABA



AURKEZPENA

Ikuspuntu kualitatibo batetik, Euskal Autonomi Erkidegoan adimen urritasuna eta buru nahastea duten emakumeen lan eta profesional errealitatea ezagutzea.

Hau da Ehlabeek landutako, EMAKUMEAK KONTUAN ikerketaren helburua; bertan adimen urritasuna zein buruko nahastea duten 332 emakumeek hartu dute parte, beste eragile batzuekin batera: senideak, adimen urritasun eta buru nahasteko Elkartek, Serbitzu Sozialak, Garapen Lokalaren Agentziak, Lanbide eta INEM, Osasun Mental Zentroak, laneratzeko zentru asistenzialak, Emakunde, Eusko Jaurlaritzako enplegu Zuzendaritza, sindikatoak, enpresak,...


Komiki honek, modu bitxi batetan, ikerketa honen ondorioak aurkezten ditu; bertan protagonisten ahotsen bitartez, 9 bizitzako historia ezagutuko ditugu, 332 elkarrizketatik laburbilduta izan direnak.

EMAKUMEAK KONTUAN...

IRUDITZAILEAREN AIPAMENA

"Nire muga fisiko edo psikologikoak izan ditzaket, baina gustiz zihur nago, nire arrazoia guztian, hau eta gehiago egiten lortu dudala. Asperger diagnostikoak ez zuen, inolaz ere, guzti hau iragartzen."

- Juan Manuel Arroyo Alcón
Gitek, Grupo Gureak



IRAKURKETA AUKERAK

Komiki hau bi eratara irakurri
daiteke:

Ohikoa:

Hasieratik bukaerara, era honetan istorioak testuinguruetan antolatzen dira.

Eskola Aroa / Lortzen Akademikoak
Desgaitasun Motak
Egoera Familiarra
Euskarri Sarea
Lan Motak
Aisi Aldia
Etorkizuna
Proposamenak



Protagonistak:

Protagonistek bakoitzak bere kolore eta itxura propioa du. Pertsonai bat aukeratu eta bere istorio osoa irakurri dezakezu, bere kolore eskema gidari.



- ☐ Testuinguru bakoitza, formato honetan azaltzen den nota
- ☐ argitzaile bat darama.

Adimen urritasuna edota buruko nahastea daukaten emakumeek diskriminazio bikoitza bizi dute. Berdintasun ezaren elkarguneei esker, emakume izate hutsagatik baino gehiago sufritzen ari diren emakumeak ezagutzeko aukera dugu. Identifika ditzagun berdintasun ezaren ardatzak eta berdintasun gabezia horren mende daudenak.

María Silvestre. Emakunde-ren Zuzendaria

Egindako lana garrantzitsua da erabat; hori gauzatzeko, hiru elementu kritiko elkarrekin lotu eta gurutzatu dira: emakumea, adimen urritasuna eta enplegua. Txalotzekoa da, baita ere, nola islatu den komikian, modu didaktiko, erakargarri eta berritzailean, alegia.

Bereziki aipatzekoak dira familiari eta hezkuntzako munduari zuzenduriko mezuak.

Luis M^a Ullibarri. Gizarte Berrikuntza Saileko Zuzendaria. Innobasque

"Lan inguruneak sortzen dituzten enpresek, lanerako aukera anitzak barne hartzen dituztenak barne, faktore garrantzitsu bat eskuratuko dute lehiakortasunari begira: hori da bezeroek, kontsumitzaileek eta, oro har, gizarteak jakinarazi behar dieguna."

Mariano Cortés. Lanbideko Lana Sustatzeko Zuzendaria.

Lanean txertatzea da adimen urritasuna edota buruko osasun arazoak dituzten emakumeak gizarteratzeko bide nagusienetakoa.

Estereotipoak gainditzea, estigma desagerraraztea, autonomia pertsonala sustatzea eta lan babestuko enplegua lortzen laguntzea dira, besteak beste, balioz gainezka dauden emakume horien eskubideak bermatzeko nahitaezko zenbait tresna.

Iñigo Lamarca. Arartekoa

FEDEAFES: "Egun dagoen estigmaren ondorioz buruko gaixotasuna duten emakumeek gainditu beharreko oztopo ikusezinak azpimarratu nahi dituzte, bai komikiak, bai azterlanak, baita lan eremuan ere; buruko gaixotasunaren inguruko ezagutza, izan ere, oso urria da eta, esan bezala, nahitaezkoa da estigma horren kontrako plana diseinatzea."

M^a José Cano. FEDEAFESeko (Federación de Euskadi de asociaciones de familiares y enfermos psíquicos) Zuzendari Nagusia

"Oso zaila da adimen urritasunari so egiteko erabiltzen ditugun betaurrekoak aldetik kentzea; estigmaren betaurrekoak, mundu kolorebakarra eta grisa erakusten digutenak. Emakumeak kontuan azterlanak... kolore anitzeko ikuspegia eskaintzen digu, paletako kolore guztiekin, emakumeek bizi duten adimen urritasuna optika egokiago batetik ikus dezagun. Lortu ere egiten duela uste dut, emozioz beteriko ibilbide erreala proposatuz, adimen urritasuna duten emakumeen bizitzako inguruabarrez gainezka, eta bateratzen eta identifikatzen gaituen dimentsio bakarrean oinarrituta: giza dimentsioa. Zorionak"

Jose Antonio de la Rica,
Osakidetza - Euskal Osasun Zerbitzuko

"Emakumeak kontuan izeneko komikia erabat txundigarria iruditu zait; adimen urritasuna eta/edo buruko nahastea duten emakumeek lan merkatuan bizi duten egoera zaila ezagutzera emateko eta horren inguruan kontzientziatzeko balioko duela uste dut. Langile horien gainen dauden estereotipo eta estigmak hausteko balioko duela espero dut. Gainera, agerian uzten du lan eta gizarte arloan esku hartzen duten eragile desberdinen arteko koordinazio-beharra, eta pertsona horien bizi-baldintzak hobetzeko laguntzaren beharria. Animo lankideok! Jarraitu borrokan, zuekin gaude, oztopoak gainditzeko eta diskriminazioa desagerrarazteko.

Felisa Piedra Gao. CCOOen Emakumearen eta Gizarte Politiken Idazkaritzako arduraduna

Diotenez, guztia da lorgarria. Eta hala da. Berdintasuna, maitasuna, lana edota errespetua lortzeko, borrokatu egin behar da, baina ez arma bidezko gerra batean, arma isilen aurka baizik: beldurra, aurreiritziak, ustez desberdinak diren gauzen aurreko mesfidantza. Norberak benetan balio duena frogatu beharra.

Horregatik, norberak nahi duena lortzeko (lana, familia, etab.) nahitaezkoa da laguntza edukitzea. Lehenengo eta behin familiarena; munduari aurre egiteko, nahi duzun lekuan lan egiteko edota zuren ametsak betetzeko gai bazarela esaten dizun laguntza. Gero, guztion laguntza dago, gizartearena alegia. Laguntza horrek indarra ematen dizu, guztion artean berdintasun ezarekin bukatzeko. Eta desberdina izategatik baino egindako lanagatik inori begiratzen zaion egunean, mesfidantza guztiak atzean utzi, eta gizartea hobea ez ezik, osoagoa izango da.

Jesús García de Cos. UGT Euskadiko gizarte zerbitzuen arduraduna

Guztiok egin behar dugu bat, emakumeak geroz eta gehiago kontuan har ditzagun.

Iñigo Iriarte. FEVASeko (Adimen ezintasuna dutenen aldeko Elkarteen Euskal Federazioa)

Lan munduan diskriminazioak egon badaude; batzuk agerikoak dira, baina beste batzuk, adimen urritasuna eta buruko nahastea duten emakumeei eragiten dietenak, berriz, ezkutukoak. Horregatik, nahitaezkoa da emakumeak eurak txertatzea berdintasunik eza edota diskriminazio anitza bezalako egoerak gertatzen diren lekuetan.

Laneko baldintzak adosteko **NEGOZIAZIO MAHAIA** ezinbestekoa dela uste du ELAk; bertan, adimen urritasuna eta buruko gaixotasuna duten emakumeen presentzia bermatu behar da. Batez ere, garrantzitsua da emakumeak bertan egon eta ordezkaritza izatea, erabakiak hartzeko espazio publikoa den heinean, non agentzien orain arteko gaitasuna sustatu eta emakumeei bizitzako eremu pribatutik haratago joateko aukera emango zaien.

Negoiazio mahai horretan familiek duten parte hartzean ere babesten dugu, beralen esan beharreko eta interes guztiak bermatzeko, eta enpresaren aldetik arbitrariorotasunak saihesteko. Familiako kide desberdinak kontuan hartzea ere garrantzitsua da, familiaren erantzukizun guztia emakumeen gain utzi beharrean.

Jone Bengoetxea. ELAko Genero Politiken Arduraduna.

BEATRIZ



LUISA



SANDRA



Jone



AMAIA



ANE



Carmen



LEIRE



MARTA





Marta
38 urte
Adimen urritasuna

Enplegu arrunt
lagunduan
Ezkongaia

0000098765432102#

Urritasuna duten pertsonentzako den pisu babestu betaetan bizi da. Geriatria laguntzailea da. Bikotea du eta independizatu nahi du.
Mezularitza enpresa bateko langilea da enplegu arrunt lagunduan aritze da.
Bere lanean gustora sentitzen da eta kontratu mugagabea du. Asteburutan kiroldegia joaten da eta sukaldean aritzen da. Bere mutilarekin pisuak begiratzan ditu eta bere ahizparekin paseatzen du.
Adimen urritasuna duten neskentzako aukera haundiagoak egotea nahiko luke.

Bere bikotearekin bizi da.
Administrazio publikoko bulegoetan lan egiten du.
20 urterarte ikasi zuen. Down-en Sindromea duten pertsonen mesederako lan egiten duen erakunde batetan jarraitu zituen ikasketak.
Administrari laguntzaile bezala lan egin nahi du.
Kiroldegia joaten da, informatika egiten du eta asteburutan sukaldean aritzea gustokoa du.
Kontratu bat merezi duela usten du, bere lana kabuz egiten



Sandra
32 urte
Adimen urritasuna

Enplegu arrunta
praktiketan
Ezkonduta

0000077364827364#



Ane
39 urte
Adimen urritasuna

Langabezian

Ezkongaia

0000054011134999#

Bere gurasoekin bizi da eta etxeko lanaz aparte ahaideei laguntzeaz arduratzen da (bere aita gurpil aulkian dago) 13 urterkin utzi zion ikasteari eta inoiz ez du lan egiten pentsatu.
Gustura sentitzen da bere eguneroko jarduerekin.
Igandetan mezetara joaten da, anaiekin kafea hartzen du eta arratsaldean klubera joaten da.
Ez zaio lan-egoera hobetzeko proposamenik bururatzen.

Bere aitarekin, amarekin eta anai-arrebekin bizi da.
Elikadura saileko langile bezala lan egiten du.
Batxilergoa arte ikasi zuen zentro pribatu batean eta gero unibertsitate ikasketak egin zituen, baina krisi batek uztea bultzten zion.
Orain dela bi urte lan babestuko erakunde batera iritsi zen. Eta enplegu arruntera aldatzea proposatu diote.
Asteburuetan etxean, familiarekin, lagunekin eta bere mutil-lagunarekin egoten da.
"Arraroak", "zoroak" edo "arriskutsuak" izatearen ospea kentzea nahiko luke



Beatriz
29 urte
Buruko nahastea

Enplegu zentru
berezian
Ezkongaia

0000034528475893#



Amaia
38 urte
Buruko nahastea

Enplegu arrunta

Ezkonduta

0000066616661666#

Bere senarra eta alabarekin bizi da.
Gozoki denda baten jabea da.
FP administratiboa bukatu zuen, krisialdi ugarien artean hospitalean ingresatu zuten maiz.
Oso gustura sentitzen da egiten duen lanarekin eta dendan jubilatze nahiko luke.
Asteburuak dendako lanari, etxeari eta aisialdiari eskaintzen dizkio.
Enpresak beraiek ezagutu dezaten eta langile bezala baloratzea nahiko luke.



Luisa
50 urte
Adimen urritasuna
Enplegu zentru
berezian
Ezkongaia

0000089473856732#

Ama alargunarekin bizi da.
Tailer elektrikoko langile-postuan ari da.
Perstona batzuek ez zuten ongi tratatzen eskola aroan, 18 urterekin utzi zuen.

Oso gustura dabil lanarekin eta bere burua tailerrean ikusten du bizitza osoan.
Aisialdian etxean gelditzen da, telebistari begira.

Bere hobetzeko proposamena, tailerrean beste lan batzuk ere ikasi daitezela.

Ahizparekin, koinatuarekin eta lobekin bizi da.

Mezularitza enpresa bateko langilea da.
Oso gustura dabil lanarekin, nahiz eta eskola aroan oso bakarti sentitu.

Bizitza guztia tailerrean igaroko duela uste du.

Asteburuetan aisialdiko klubera joaten da, eta lobekin ateratzen da, paseoan, zinemara edo dendarik denda.

lanpostuaren inguruko iritzia emateko aukera izatea nahiko luke.



Jone
24 urte
Adimen urritasuna
Zentru
Okupazionala
Ezkongaia

0000099999943635#



Carmen
45 urte
Buruko nahastea
Zentru
Okupazionala
Ezkondata

0000012345678909#

Bere gurasoekin bizi da.
Lan bila dabil.
Enpresa-ikasketak hasi zituen, baina praktikan zegoen bitartean lehenbiziko krisialdiak izan zituen.
Elkarte batetan dago eta teknologia berrietarako trebatzen ari da.
Asteburutan zinemara, dantza egitera edo mendira joaten da.
Krisia lehenbailehen bukatu dadila nahi du lanpostu kopurua igo dadin.

Bere senarrarekin bizi da.
Telefono kableak muntatzen lantegiko langile bezala lan egiten du.
14 urterate ikasi zuen, gazte ezkondu zen eta 3 seme-alaba izan zituen.
Seme txikia hil zitzaion eta depresioa bat izan zuen.

Oso gustura sentitzen da egiten duen lanarekin, egunez egun bizi da.
Asteburuak etxea eta familia zaintzen igarotzen ditu.

Hobetzeko proposamen gisa, buruko nahastearen inguruan sentsibilizatzeko kanpainak proposatzen ditu.



Leire
38 urte
Buruko nahastea
Langabezian
Ezkongaia

0000019274666374#



Amaia

ESKOLA AROA

GELAN EGOTeko
GOGORIE EZ DUT..

Carmen

Jone



Luisa



Sandra



Ane

Beatriz



HPARTA ZEN DENA OSO
ONDO ZIJON

Marta



GERIATRIAKO LH-A BUKATU
DUT DAGOENEO.



KURTSOA GUSTOKOA EZ
DEZULAKO. ETXEAN
BIDEOJOKOTAN
JOLASTEN GELDITUKO
ZARELA EZ DU ESAN NAHI,
MESEDEZ!
ZEHOZERREKIN
JARRAITU!

Leire


Adimen urritasuna duten gure protagonisten eskola aroa, askotan beste ume batzuekiko intolerantzia eta bakartasunez beterik daude; nahiz eta beti parte diren taldetxo bat aurkitzen duten. Gelan dagoen integrazio soziala oso baiezkoa suertatzen da beraien gaitasun sozialak garatzeko.

Eskolaz kanpoko ekintzak egiteko senideen ingugiro egokia izatea ere oso baiezkoa suertatzen da.



Buru nahastea duten neskek inungo arazorik gabeko eskola aroa osatzen dute. Bere hezkuntza akademikoa gustokoak dituzten ikasketa edo titulazioetan jorratzen dituzte, aurretik buruko nahastea azaltzen ez bada.

**LORPEN
AKADEMIKOAK**

KRISIALDIAK / DESGAITASUN MOTAK



Adimen urritasunak bizitzaren hasierako urratsetatik lagun izan dezaketen ez ulertze sensazioa sortu dezake. Askotan, beraiek nabaritzen duten diskriminazio tratu bat ematen zaie.



ESTIGMATIZAZIOA

Buruko nahastearen kasuan, hau bapatean agertu daiteke eta baita situazio unkigarri baten ostean. Bere ustekabeko sartzea ordurarteko bizimoduaren haustura dakar.

Zipriprazol
antidepresivo

NOTA: Consulte su farmacéutico antes de consumir.

Egoera Familiarra

Ama



Nere ahizpa



Nere kuñatua



Luisa



Nere hilobak




Jone



AITA



AMA



ANE



Nere bikotea



Sandra



NERE BIKOTEA



MARTA



Nere senarra



Amaia



Nere alaba



NERE GURASOAK



LEIRE

Famili bakoitza mundu bat da. Dena den, guztiek dute zehozar komunen: gaitasunak, trebetasunak eta jarrerak trebatzeko erreferentzi oso garrantzitsuak dira. Familiak duen lanerako motibazioa, beraien senideak lan bat aurkitu eta mantentzeko, ezinbestekoa da.

Gainera, buruko nahastea duten emkumeentzako, familiatik egonkortasun emozionala jasotzea oso garrantzitsua da.

NERE GURASOAK



NERE SENARRA



CARMEN



NERE ANAIAK



NERE ALABAK



BEATRIZ



EUSKARRI SAREA

FAMILIA

ZERBITZU SOZIALAK

ELKARTEAK

JONE

CARMEN

LUISA

BEATRIZ


AMAIA



ZENTRU OKUPAZIONALA

ENPLEGU ZENTRU
BEREZIA

ENPLEGU



FUNDAZIOAK

MARTA

SANDRA

LEIRE

ANE



ARRUNTA

LANGABEZIA

Gure protagonistek erlazio eta euskarri sare haundi bat izaten dute. Familia ardatz nagusia izaten da, inguruan zerbitzu sozialetako eta buruko osasunaren profesionalak aurkitzen dira, eta baita desgaitasun eta desoreken inguruko elkarte eta entiteak. Elkarte bateren parte izatea, lanpostu bat lortu eta mantentzeko bultzakada haundia izaten da.

LAN MOTAK



Gure protagonistek lan mota desberdin asko betetzeko gai dira. Sektore eta enpresa ezberdinetan, beraien gaitasunen arabera egokitutako exigentzi maila desberdinetan. Adimen urritasun eta buru nahstea duten emakume asko langabezia dauka; askotan beraien esfortzua etxeko lanak edo senideak zaintzera eskeintzen diote.



AI SI ALDIA



FINE



KAFEA NERE ANAIEKIN, GOIZETAN
MEZETARA ETA LAGUNEKIN KLUBERA ERE
JOATEN NAIZ.



SANDRA

Sukaldea eta gimnasioa.



Beti telebista ikusten
egoten naiz.




Nere hilobekin, zinema, paseoak
eta erosketak.

Konpanian gozatutako aisialdi
aktiboarentzako denbora izatea, gure
protagonisten bizitzentzako aberasgarri
eta eragingarria da. Lan jardunaldia
betetzeko eta erlazioak finkatzeko ere
garrantzitsua da.



CARMEN



SENARRA ETA ALABAK DIRA
NERE BIZITZAREN ARDATZA.



AHAL DETEN DENBORA GEHIENA
NERE BIKOTEAREKIN PASATZEN
DUT.

PARRANDAA!



AMALIA



Asteburutan aste osoko
salmentak begiratzek ditut
senarrarekin.

Familian
gozatutako
aisialdia ere,
oso elementu
baliagarria da

LEIRE



MARTEL

AISSALDIETAN PISUAK
BILATZEN DITUGU.

ETORKIZUNA

BERDIN
JAR RAITUKO DUGU



JONE



LUISA



ANE



AMAI



Enplegu bat duten emakumeak ez dira etorkizunean lan mundutik kanpo ikusten. Lanpostu bat nahi eta ez dutenek, lortuko dutela amesten dute eta zergatik ez, enplegu arruntean ere. Den den, zalantzak agertzen dira beti; alde batetik, sentitzen duten diskriminazioarengatik eta bestalde, lana etxeko ardurekin bateragarri egiteko zalantzak.

Erronka bat izango da. Administrari laguntzaile izan nahi dut, baina zailtasunak gainditu beharko ditut.

ENPLEGU ARRUNTA

BENETAN! ZER DIOZU?
KONTRATU EGIN DIDATE?



SANDRA



LEIRE



MARTHA



CARMEN



BEATRIZ

PROPOSAMENAK



Lanpostuari buruz eritzia
emateko lantegia gu
kontutan izatea.

Luisa



Nere lanean oso ona
naiz. Lana kabuz
egiten dut eta inoiz ez
dut kexarik izan.
Aldiz, oso ondo egiten
dudala esaten didate.
Orduan, zergatik ez
gaituzte langile bezela
nahi?

Sandra

NIK EZ DAKIT EZER HONTAZ.

ANE



LANKIDE BEZALA JENDEAK UKO EZ
EGITEKO. ARRAROAK, EROAK EDO
ARRISKUTSUEN KARTELA KENDU
DEZATELA.
EZ AGUTZEN DENA ONARTZEN
VELA IKASI DUT.
EZEZ AGUNA BELDURRA EMATEN
DUELA.

BEATRIZ

Gure protagonistek emakume langilearen rola betetzeko eskubidea aldarrikatzen dute. Lan indarra bezela kontutan hartu izana eta hortaz aintzat hartu izatea, bere lanpostuetan aktiboak izateko aukera edukitzea eta bere ezaguera eskeini ahal izatea, baita formazioan jarraitzea ere, bere trebakuntza hobetzeko. Gizartearen sensibilizazioa eta batez ere enpresen eta langileena, ezinbestekoa dirudi guzti hau lortzeko.

Lantokian lan berri gehiago ikasteko aukerak.

Jone



BURUKO NAHASTEARI INGURUKO KANPAINAK. LAN EGITEN EZ DAKIGULA EDO EZIN DEGULA USTEN DUTE, EZ GAITUZTE LANGILE BEZELA IKUSTEN, GAIKO BEZELA BAIZIK.

Gizarteak eta enpresek gure lan gaitasuna ezagutu dezatela. Gu langile bezela ezagutzea. Umegentzako kanpaina bat ona litzateke, gaurko neska-mutilak biharko nagusiak dira. Eskolan dagoen integrazioa gizartera eta enpresara iritsi behar da. Egin eta nahi duguna ahal dugu horrekin lotu behar dugu.

CARMEN



KRISIA BUKATU DADILA. LANPOSTU BERRIAK SORTZEKO.

LEIRE

INSTITUZIO PUBLIKOAK DESGAITASUN INTELEKTUALA DUGUN EMAKUMEENGATIK BORROKA EGIN DEZATEN. MONSTRUO BEZALA IKUSI EZ GAITEZEN, LANERAKO BALIO BADUGU KONTRATATU GAITEZEN.



MARTA

AZTERLANEAN SORTU DIREN HAUSNARK



AZTERLANEAN PARTE HARTU DUTEN EMAKUMEEK
LANGILE GISA SENTITZEN DUTEN **ESKUBIDEAZ** HITZ
EGIN DUTE. ROL PRODUKTIBOA EGIKARITZEKO
ESKUBIDEA ERREBINDIKATZEN DUTE; HALA SENTITZEN
DUTELAKO, ETA BADAKITELAKO ZEIN DEN LAN
ARRUNTEKO MERKATURA IRISTEAN BIZI DUTEN
DISKRIMINAZIOA, BAI ETA LAN HORI PROFESIONALKI



ADIMEN URRITASUNA EDOTA BURUKO NAHASTEREN
BAT DUTEN EMAKUMEEN **FAMILIEK** EGITEKO OSO
GARRANTZITSUA DUTE PERTSONA HORIEK
LANERATZERA HURBILDU ETA BERTAN
MANTENTZEARI DAGOKIONEZ. PERTSONA EDOTA
FAMILIEN **ELKARTEAK** ERE, **MOTOR** GARRANTZITSUAK
DIRA ENPLEGURAKO **MOTIBAZIOARI** DAGOKIONEZ



LAN BABESTUKO ERAKUNDEAK DIRA ADIMEN URRITASUNA
ETA/EDO BURUKO NAHASTEA DUEN EMAKUMEENTZAT
ENPLEGUA LORTZEKO ERREFERENTE NAGUSIA.
ENPRESA-EREDU HORIEK EZAGUTZA NAHIKOA DUTE
LANPOSTU BAKOITZA PERTSONA JAKIN BATEN
GAITASUNETARA EGOKITZEKO; ERA BEREAN, OSO
LAGUNGARRIAK DIRA, PERTSONA HORIEK LAN-MERKATU
ARRUNTERA IGAROTZEN LAGUNDU EDOTA BERTAN
KONTRATATZEKO. LAN BABESTUKO ERAKUNDEAK, USTEZ
BEHINTZAT, ADIMEN URRITASUNA ETA/EDO BURUKO
NAHASTEA DUTEN EMAKUMEAK KONTRATAZEKO

ETA NAGUSIAK

LAN ARRUNTEKO ENPRESEN
INGURUNEA, NORMALEAN, URRUN DAGO
ADIMEN URRITASUNA ETA/EDO
BURUKO NAHASTEA DUTEN
PERTSONAK ZUZENEAN
KONTRATATZEKO ERANTZUKIZUNA
BETETZETIK. GIZARTE IZAERAKO
ERANTZUKIZUN HORI BERE GAIN EZ
HARTZEA (EZ BAITUTE ERANTZUKIZUN
PROPIO GISA HARTZEN), PROFIL
HORIEK ENPRESAN TXERTATU ETA
BERTAN EGOKITZEKO
LAGUNTZA-FALTA (ESKURA DITUZTEN
LAGUNTZAK EZ EZAGUTZEAREN
ONDORIOZ), ETA AZKENIK, ADIMEN
URRITASUNA ETA/EDO BURUKO
NAHASTEA DUTENENTZAT EZ EGOKIAK
DIRELA USTE DIREN
ENPRESA-JARDUERAK GARATZEA
DIRA, ORO HAR, LAN MERKATU
ARRUNTEAN EMAKUME HORIEK DUTEN
PRESENTZIA ESKASA ARGUDIAITZEKO
ERABILTZEN DIREN ARRAZOI NAGUSIAK.

People with Disabilities

ARE GREAT TO WORK WITH



A U.S. Employment Ministry Message

ADIMEN URRITASUNA ETA/EDO
BURUKO NAHASTEA DUTEN
EMAKUMEEN GIZARTE ETA LANEKO
ETORKIZUNEAN **MAKINA BAT GIZARTE**
ERAGILEK, ERAGILEK EKONOMIKOK,
ERAKUNDEK ETA ABARREK HARTZEN
DUTE PARTE. HORIEN ARTEKO
KOORDINAZIOA, ETA GARATUTAKO
ESTRATEGIEN NAHIZ ESKURA
DAUDEN BALIABIDEEN INGURUAN
DUTEN **EZAGUTZA** IKUSITA,
HOBETZEKO AUKERAK DAUDELA
ESAN DAITEKE.



HAUSNARKETA NAGUSIAK

GENERO-IKUSPEGIA BARNE HARTZEA;
HORRETARAKO, PROGRAMA, PROZEDURA,
ESTRATEGIA ETA ABARREN BALORAZIOAN OINARRITU
BEHARKO LITZATEKE. IZAN ERE, LAN BABESTUKO
ERAKUNDEETAN EGITEKO HORI EZ DA
SISTEMATIKOKI GAUZATZEN (BAI ORDEA
KONPROMISOAM ETA EKINTZA KOHERENTEAK, BAINA
EZ MODU OROKORREAN), ETA GAINERAKO
ERAGILEETAN, BERRIZ, EZ DAGO HORREN
ARRASTORIK ERE. ADIMEN URRITASUNA ETA/EDO
BURUKO NAHASTEAK DUTEN EMAKUMEEK LANEKO
EREMUAN JASATEN DUTEN DISKRIMINAZIO ANITZAK
(URRITASUNAREN ONDORIOZ PAIRATUTAKO
DISKRIMINAZIOA, ADIMEN EKO URRITASUNAK EDOTA
BURUKO FENOMENOREN BATEK AREAGOTZEN
DUENA ETA, AZKENIK, EMAKUME IZATE SOILAGATIK)
BEHARREZKO EGITEN DU GENDRO-IKUSPEGIA
KONTUAN HARTZEA, ENPLEGURAKO POLITIKA ETA
ESTRATEGIEN JARDUERA-ARDATZ GISA EKINTZA
POSITIBOAK BARNE HARTUKO DUENA.



Die psychische Erkrankung
Machen Sie es bekannt, die Menschen



YES WE CAN

GIZARTEA ANIZTASUNAREN AURREAN
SENTSIBILIZATZEKO BEHARRIZAN HANDIA DAGO ETA,
BEREZIKI, SENTSIBILIZAZIO HORI
ENPRESA-SAREAREN BAITAN GAUZATZEA, HALA
PUBLIKOAN NOLA PRIBATUAN, KONTRATAZIOA
SUSTATZEKO HELBURUAREKIN. ADIMEN
URRITASUNAREN ETA BURUKO NAHASTEAREN
FENOMENOEK, BAKOITZAK BERE EZAUGARRIAK
DITUELARIK, ESTRATEGIA UGARI BEHAR DUTE,
HARREMANAK BERDINTASUNEAN ETA DISKRIMINAZIORIK

ADIMEN URRITASUNAREKIN ALDERATUTA, BURUKO
NAHASTEAK ESTIGMATIZAZIO NEGATIBO HANDIAGO
DU; HALA ERE, ESAN BEHARRA DAGO, GIZARTEAK ORO
HAR MODU EZ HAIN EZKORREAN ANTZEMATEN DUELA
ERREALITATE HORI GAUR EGUN. FENOMENO BI-BIEK,
HAU DA, ADIMEN URRITASUNAK ETA BURUKO
NAHASTEAK BIZI DUTEN DISKRIMINAZIOA, ASKOZ ERE
NABARIAGOAZKEN KASU HORRETAN. BERAZ, PREMIA
HANDIAGIA DU HORI KONPONTZEKO ESTRATEGIAK
GARATZEAK, NAHASTE HORREK HERRITARREN ARTEAN
DUEN ERAGINA GEHITUZ DOALAKO, APURKA-APURKA.



